

## 1. MAHASGINTZA BOLETINA / 2017ko URTARRILA

- Internet bidezko asteroko oharrak :  
[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=5505&Idioma=EU](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU)
- Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maitzaren lehen astetik aurrera): 944066879
- Mahasgintza eta enologia boletina.
- SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinen lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...).

### 1.-TRATAMENDU GIDAK 2017 TA OHAR FITOSANITARIOAK

Famili desberdinetako materia aktiboak txandakatzea funtsezkoa da erresistentzien sorrera ekiditeko, batez be fungizida sistemiko eta akarizidak erabiltzerakoan.

Produktu Fitosanitarioen Erregistroan jarduera desbardin dekon **produktu barri bat** deko: **Enervin Top**, produktu sarkorra (ametotradina +metirama). 2017ko Tratamendu Gidatan sartutako beste produktu barri batzuk: **Forum Gold** produktu sistemikoa (dimetomorfa+ditianona) eta Pergado F produktua, barriz be onartzen dana bere erabilera espalderatan eta parratan. Gidatan sartutako beste produktu batzuk: Karathane Star, Rebut WG, eta Enovit Metil. **Chorus produktua** Gidatik kendu dogu gaur egun **bere erabilera mahastietan ez dagoelako onartua**. Produktu hau kanpaina honen zehar agortu beharko geunke.

Gogoratu **Switch** produktuaren **segurtasun epea** aldatu egin dala eta gaur egun **21 egunekoa** dala.

Beste urteetan lez, kanpaina zehar Boletinak bidaliko doguz izurri eta gaixotasunei buruz informatuz, eta baita une egokietan erabili beharreko produktuei buruzko informazioa ere. Asteroko abisuak maiatzetik aurrera, 94 420 68 79 tfoan. erantzungailu automatikoaren bidez emongo dira edo web orrian bide hau jarraituz:

“www.bizkaia.eus/Gaiak/ Nekazaritza eta Abeltzaintza/ Nekazaritza/ Landare Osasuna/ Landareen Baseserako Zentroa/ Ikusi Gidaliburuak eta Buletinak” edo helbide hontan klikatuz:

[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Idioma=EU&Tem\\_Codigo=5511&dpto\\_biz=2&codpath\\_biz=2|201|518|5511](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Idioma=EU&Tem_Codigo=5511&dpto_biz=2&codpath_biz=2|201|518|5511)

Landare Osasuneko Teknikariek mahastietan agertutako izurri eta gaixotasunei buruzko kontsultak erantzungo dabez. Horretarako, laginak Landare Babeserako Zentrora, Derioko Granjara bidal daitezke, edo 94 45410 09 tfnora. teknikariek in harremanetan ipini, beharrezkoa izanik somatutako sintomak agerian dituen landare bat edo zati bat ekartzea.

### 2.-INAUSKETA ZAURIAK

Azkeneko kanpainetan zureko onddo-multzoen eragina (ardagai, eutipiosisa, beso sikua...) gora egin dau. Onddo honen kontrako tratamendu osagarririk ez da eta probentiboki honao neurriak gomendatzen dira:

- Landaketa ziurtatutakoa eta kalitaterik onenekoa den material begetalarekin egin.
- Hazkunde-garaian, **sintomak dituzten mahatsondoak markatu**. Neguan, inausketa garaian, infektatuta dauden mahatsondoetan jardun.
- Neguan eta **inausketa garaian, kaltetutako mahatsondoak amaierarako utzi**, eta artaziak desinfektatu mahatsondo batetik bestera igarotzean. (lixiba diluitua % 3an duen spray erabili)
- **Inausketa eguraldi lehorra dagoenean egin**. Inausi izerdiaren bidea erraztuz.
- Infektatuta dagoen inausketako materiala suntsitu. Landaketatik atera eta erre.
- Inausketako mozketak ez dira horizontalak izan behar. Inausketako zauriak, batez be handiak, **mastic-ekin estaldu**.
- Landaketari inausketa egin ondoren tratamendu fungizida bat emon. Tratamedu hauek dekien eragintasuna oinik arren aztertzen ari dira. Saio hauetan fungizida desberdinak aztertzen ari dira, euren artean metil tiofanatoa (produktu komertziala Topsin 70). Tratamendu hauek ez doguz zertan egin behar inausketako zauriak mastic-ekin estaldu badoguz.

- Landare barria sor daiteke beheko kimuetatik, egur osasuntsua mozten dugula ziurtatzen badugu (nekrosirik edo egur ustelik ez dagoen lekuan); moztutako tokia mastic-ekin estali behar da.

- Beste batzuk: landare gazteetan egoera behartuak saihestu, adibidez, ekoizpena aurreratzeko ongarririk gehiegirik ez bota.

### 3.- NEGUKO ONGARRITZEA

Neguko geldialdiaren epealdian, premiazkoa da lurzorutik ateratako elikagarriak bueltatzea, Potasio, Fosforo eta Magnesiodun ekarpenekin.

**Ongarriztearen gomendio orokorra** lurzoruaren eta orriaren analisisa egon ezean honakoa da:

75 - 125 gramo 0-14-14 andui bakoitzeko.  
20 - 40 gramo Magnesio Sulfato andui bakoitzeko.

Ongarri hauek anduiaren inguruan ezarriko dira, landare gazteetan ongarririk gabeko 25 cm.ko diametroko zirkulu bat ongarririk gabe utziz; eta andui helduetan landaketa-lerroan kokatuz.

***Ez da nitrogenodun ongarrizteak egiteko unea***, hauek euriak garbi baititzake anduiak udaberrian aprobetxatu baino lehen.

Ongarriak ez badira une honetan botatzen, udaberrian, anduia mugitu denean, Nitrogenoa, Fosforoa, Potasioa eta Magnesioa dituen hirukoitz bat botako da.

### 4.-LURZORUAREN MANTENIMENDUA

Negua amaieran gomendagarria da bedarra kentzea matsondoagaz sortzen dan kompetentzia ekiditeko ta baita udabarriko laien eragina gitxiteko. Erabilitako era lerroan aplikatutako herbizida bada, aplikazioa kontu handiz egin, produktua landaketa-lerroan kanpai batekin 60 – 80 zm.ko banda baten kokatuz eta, zepa-lepoa ez bustitzen ahaleginduz. Tratamendua ernabarritu baino lehen egin behar da fitotoxizidaderik ez sortzeko.

Pasiloan, lerroen artean, landare-estaldura sasigarbitzeko makinarekin mantentzea proposatzen da, zorua hobeto aireberritzea baimendu, materia organikoaren maila hobetu, eta tratamenduak egiteko lur-sailerako sarbidea errazten baitu.

### 5.- MAHASTIEN ARLOKO ARAUTEGI BERRIA

2016ko urtarriletik aurrera, mahatsa ekoizteko ahalmena arautzen duen arautegi berria hasi da aplikatzen: uztailaren 31ko 740/2015 Errege Dekretua.

Otsailaren 1etik martxoaren 15era arte, zabalik egongo da mahastiak landatzeko baimen berriak eskatzeko eskabideak aurkezteko epea.

Gai honi buruzko kontsultak egiteko, deitu Nekazaritza Zerbitzuko teknikari hauei: Gerardo Robles (944066987) edo Manu Lauzirika (944066882).